

# Taldean penstatzeko instalazioa



Talde artistiko bat sortuko dugu eta hainbat ekintza diseinatuko, partekatzen dugun arazo edo gatazka bati buruzko hausnarketa eta analisisa sustatzeko.

## Helburuak

- Cabeza de Artista taldearen obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Instalazio edo ekintza parte-hartzaile bat diseinatzea, sormenezko ariketa politiko gisa.
- Taldean egindako lanaren (adostasunak eta desadostasunak) balioa nabarmentzea, ikasketa-prozesu garrantzitsu gisa.
- Inguruan dugunari buruz hausnartzea artearen bidez.

## Aipamenak

- "Posters for tomorrow" Domestika-n. <https://www.domestika.org/es/blog/1491-posters-for-tomorrow-diseno-reivindicativo-por-una-buena-causa>
- Arte povera (arte pobrea): <https://www.artlex.com/es/movimientos-artisticos/arte-povera/>
- Instalazio artistikoa: <https://masdearte.com/especiales/la-instalacion-como-creacion-en-el-espacio-caracteristicas-tipos-y-casos/>
- Espazio publikoan esku hartzea:  
Testu akademikoak:  
<https://www.redalyc.org/journal/4779/477954382028/html/>  
<https://www.ub.edu/geocrit/-xcol/202.htm>  
Adibideak: <https://www.connectionsbyfinsa.com/espacios-urbanos-recuperados-gracias-a-intervenciones-artisticas/>
- Afixen edizioa:  
<https://blog.visual-paradigm.com/es/10-common-poster-design-techniques/>  
<https://www.paredro.com/14-consideraciones-para-crear-un-buen-cartel/>

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

1. Cabeza de Artista taldearen hainbat proiektu ikusiko ditugu, eta galdera hauek botako:
  - Zer dute komunean haien lanek? Komunean dituzten hiru elementu bilatuko ditugu, eta arbelean idatziko ditugu guztiok ikusteko.
  - Parte hartzeko ekintza edo proiekturen batean parte hartu dugu inoiz? Esperientzia hartan ikasitakoa paper batean idatzi edo ahoz gora partekatuko dugu.
2. Sei pertsonako taldetan, talde osoari interesatzen zaion arazo edo gatazka bat edo pare bat pentsatuko dugu. Pertsonala edo hurbilekoa izan daiteke (adibidez: ondoko klasekoekin harreman hobea izatea gustatuko litzaiguke, parkean dantza egin nahi dugu inork errieta egin gabe...) edo gure testuinguruarekin lotutako zerbait (adibidez: auzoa hain grisa ez izatea, hain zikin ez egotea, denda txikiek ez ixtea...).

3. Zergatik da garrantzitsua gatazka edo arazo horri buruz taldean hitz egitea? Modu egokian argudiatu, eta arazoak edo gatazkek ikaskideei aurkeztuko dizkiegu. Horretarako, irudiak balia ditzakegu, edo aurretik gaiaren inguruan egindako elkarrizketa batzuk.

4. Komunean jarri ondoren, aurkeztutako gatazka edo arazoetatik bi aukeratuko ditugu guztion artean.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Talde artistiko bat sortuko dugu. Horretarako, hauek behar ditugu: izen bat, sinadura, logo edo irudi bat, eta helburu batzuk (bizpahirurekin, aski).

2. Jorratzeko arazo edo gatazkaren eragina jasaten duen komunitateari irekitako tailer edo ekintzak diseinatuko ditugu. Hona hemen ideia batzuk (beste batzuk ere izan daitezke):

a- Afixen tailer bat: Hainbat afixa sortuko ditugu, azaldutako gatazkei edo arazoei buruzko hausnarketa sustatzeko esloganekin. Taldeak sinatu beharko ditu. Marrazkien eta collageen bidez egin ditzakegu, formatu handian. Aldez aurretik, estetika komun bat adostuko dugu: kolorea, konposizioa, formatua... (Ikusi aipamenak). Erabaki horiek hartzen

lagunduko diguten probak edo zirriborroak egingo ditugu. Non jarri pentsatu eta tailer bat sortuko dugu bertan, beste pertsona batzuek gaiari buruzko beren afixak egin ditzaten, erabakitako estetikari jarraituz. Txantiloiren bat, materialak eta azpiegitura (paperak, kola, margoak, mahaia...) eraman ditzakegu. Ardurak banatu, eta afixak noiz eta non jarriko ditugun erabakiko dugu.

b- Debate bat espazio publiko batean: Espazio publiko bat aukeratuko dugu (ikastetxe barruan izan liteke) eta bertan egiteko esku-hartze txikiak adostuko ditugu, erabiliko dutenen artean elkarrizketak sustatzeko giro eroso bat sortzeko helburuarekin (adibideak: parkeko bankuei mahai bat, koloretako oihalak, alfonbra bat eta abar jartzea; edo arropa zaharrekin kuxin erraldoiak sortzea eta eskolako korridoreetan uztea...). Afixa bat egin dezakegu, taldeak sinatuta, eta instalazioa erabiltzeko gonbita egin galdera zehatz bati buruz hitz egiteko. Halaber, pertsona jakin batzuk ere alde aurretik gonbita ditzakegu espazioa erabiltzera.

3. Esperientziaren ondoren, talde-asanblada bat egingo dugu ekintzak ebaluatzeko. Helburuak betetzeko balio izan al dute? Zerbait faltan bota al dugu? Zerk funtzionatu du hoberen? Zer ikasi dugu?

### Ondorioak eta lerro irekiak

1. Sortutako tailer bakoitzean partaidetza sustatzeko ekintza txikiak egitea pentsatuko dugu. Horretarako ideia batzuk: talde edo pertsona jakinei gonbidapenak bidali, abesti bat eta koreografia bat egin eta esku hartutako lekuan abestu...

2. Ekintza osatzeko, jorratzen ari garen arazoari edo gatazkari buruzko gure ikerketak, zalantzak edo iritziak parteka ditzakegu partaideekin, hala nola fanzine txiki bat banatuta, edo bildutako dokumentazioa zintzilikatuta edo nolabait erakutsita.

3. Prozesu osoa grabatu dezakegu, eta material horrekin bideo-erreportaje txiki bat muntatu. Bizitako prozesua eta parte hartzeko ekintza-tailerra ikusi ahalgo dira bertan, baita gure eta partaideen ebaluazioa ere.